

Gizarte Ekimeneko ikastetxeak-26. Greba eguna sektorean

ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek maiatzerako deitutako lehenengo greba egunak ere babes zabala izan du langileen aldetik

Patronalari eta Hezkuntza Sailari arduraz jokatzeko hasteko eta langileen eskaerei erantzunez gatazkari bide emateko erabakiak hartzeko eta planteamenduak egiteko galdegiten diegu

Azken bi ikasturtetan gauzatu den 26. greba eguna eta ikasturte honetako 23. da gaurkoa. Eta gaur ere, izan duen babesa oso zabala izan da. Beste behin ere, 3.500 langile inguru batu gara gaur Bilboko manifestazioan, ikastetxeetan lan baldintzen okertzearen ondorioz bizi den nahigabe orokortuaren erakusgarri. Izan ere, sektore honetako langileok 10 urte daramatza lan hitzarmena berri gabe.

ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuok egoerari irtenbide egoki bat eman, negoziazioa bideratu eta langileen eskaerei erantzun serio bat emango dioten adostasunak erdiesteko helburuan berresten gara. Helburu horrekin eman ditugu azken urteetako pauso guztiak, eta bereziki azken hilabeteetakoak.

Patronala ordea ez da arduraz jokatzeko ari, eta langileen eskaerei erantzunez gatazka honi irtenbidea emateko borondate falta nabaria erakusten ari da. Urtarrileko 8 greba egunen ondoren sindikatuok izandako aldebiko bileretan adostasunak erdiestea ahalbideratu zezaketen planteamenduak egin zituen arren, martxoak 25eko mahaian planteamendu horiek atzera bota zituen, eta mahai hartan aurkeztutako proposamena definitibo eta aldaezin bezala aurkeztu zuen; sindikatuok akordioak erdiesteko giltzarriak jasotzen zituen dokumentua helarazi bagenion ere ez zion dokumentuari erantzun ere egin; gatazkari irtenbidea emateko asmoz sindikatuok patronal eta hezkuntza sailari luzatutako bilera deialdiaren aurrean bilera hartara agertu ere ez egiteko erabakia hartu zuen;

Apirileko greben ondoren ere, patronalari egoera bideratzeko eta adostasunak erdiesteko asmo garbia erakutsi diogu.

Baina beste behin ere, patronalak fede txarrez jokatu du. Horrela, oraindik sindikatu denei helarazi ere egin gabeko proposamen bat zabaldu du ikastetxeetan greba bezperan, proposamenaren inguruan sindikatu bakar baten erantzunik ere jaso gabe. Proposamenaren nondik norakoa ikusita, argi dago langileen eskaerei erantzun gabe mobilizazio eta grebak desaktibatzeko helburu soilarekin jokatu duela berriro ere patronalak, langileen, ordezkarien eta sindikatuen artean nahasmena eta hausturak bilatu nahian benetako adostasunak baino gehiago.

Izan ere, proposamenak, soldaten planteamenduan aldaketa txikiren bat badu ere, martxoak 25eko mahaian jasotako ildo beretik baita doa funtseskoak diren planteamendu batzuetan, esaterako sektoreko langileei soldatak finantziaketara lotzen, edo hauek negoziatzeko aukera ebatsiko liekeen sistema bat ezartzen. Gainerako gaietan berriz ez dago aurrerapausorik.

Hezkuntza Sailak, berriz, erabateko arduragabekeria erakutsi du gatazka honi irtenbidea ematerakoan, eta Otsailean Legebiltzarrak gatazkaren irtenbidean inplikatzeko egindako eskaera ez da ari betetzen. Bere inplikazioa sindikatuok biltzera mugatu da, sindikatuon eskariz eta jadanik sektorean 18 greba egun gauzatu ondoren soilik; Hezkuntza Sailari eta patronalei gela itxieragatik lanpostua galdu dezaketen langileen birkokapenaren inguruko planteamendua orain dela 4 urte helarazi bagenien ere, Hezkuntza Sailak orain dela bi hilabete inguru arte ez du eman gai honi buruz hitz egiten hasteko inolako pausorik; eta gaur gaurkoz emandako pausoak erabat eskasak izan dira, ez baitute birkokapenerako gutxieneko bermerik erakusten; azkenik, apirilak 2rako sindikatuok egindako bilera deialdiaren aurrean ere, deialdi hura gatazka bideratzeko aukera bezala baliatu ordez, eskuak garbitzen eta gatazkaren irtenbide egoki batean inplikatu gabe jarraitzea erabaki zuen.

Hau horrela sindikatuok legebiltzarreko talde desberdinekin biltzen ari gara Hezkuntza saila legebiltzarrak emandako zeregina betetzera deitzeko.

ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuok bai patronal eta bai Hezkuntza Sailari galdegin nahi diegu bakoitzak bere ardurak bere gain har ditzala, eta behingoz bai langile, bai familia eta bai ikasleen onuran, gatazka honi irtenbide egoki bat emateko neurriak eta erabakiak har ditzatela.

Azkenik, langileak zoriondu nahi ditugu beste behin ere erakutsi duten tinkotasun, indar eta konbentzimenduagatik. Harro egotekoa da gure ikastetxeetako hezkuntza kalitatean eragin zuzena duten lan baldintzen kaskastzearen aurrean, lan baldintza horien alde borrokatzeko apustua egin duten langileak izatea gure ikastetxeetan.

Euskal Herrian 2019ko maiatzak 8an.

Hitzarmen berri baterako aldarrikapen nagusiak

Enplegua:

Akordio bat, enpleguari eusteko eta gelak balizko ixtearen eraginpeko pertsonala birkokatzeke.

Soldatak:

Eroste-ahalmena berreskuratzea.

1-DBHko eta 2-DBHko irakasleen soldatak parekatzea.

Lanaldia eta lan-kargak:

Irakasleen kasuan, ordu osagarriak erreserbatzea eskolak prestatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko, zein urtean dedikazio ez presentzialeko 70 orduren aitortza.

Administrazio eta Zerbitzuetako personalarentzat, lanaldia murriztea.

Lanbide Heziketan lanaldiaren banaketa irregularra adostea.

Bereziki prekarizatuen eta feminizatuen dauden kidegoen lan-baldintzak hobetzea.

Hezkuntza-laguntzako espezialistak: haien lana hezkuntza-izaerakotzat hartzea, ordu osagarriak ematea lana prestatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko, zein lanaldia modu erregularrean banatzea irailaren 1etik ekainaren 30era arte

Haur-hezkuntzako lehen zikloko pertsonala: haien lana hezkuntza-izaerakotzat hartzea, lanaldia murriztea, ordu osagarriak ematea lana prestatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko.



26º día de huelga en los centros de Iniciativa Social

La primera jornada de huelga convocada para mayo por ELA, STEILAS, CCOO, LAB y UGT ha vuelto a tener un amplio respaldo

Reclamamos a las patronales y al departamento de Educación que empiecen a actuar con responsabilidad y den una salida al conflicto respondiendo a las reivindicaciones planteadas

La de hoy es la 26ª jornada de huelga en los estos dos últimos cursos y las 23ª en este. Una vez más, ha tenido un amplio seguimiento. Alrededor de 3.500 trabajadoras y trabajadores han acudido a la manifestación de Bilbao, lo que indica el malestar generalizado en los centros por el deterioro de las condiciones de trabajo. Quienes trabajamos en este sector llevamos 10 años sin un convenio actualizado.

Los sindicatos ELA, STEILAS, CCOO, LAB y UGT nos reafirmamos en nuestro objetivo de encontrar una salida adecuada a la situación, encarrilar la negociación y lograr acuerdos que den una respuesta seria a las reivindicaciones planteadas. Todos los pasos de estos últimos años, en especial los de los últimos meses, han ido encaminados a ese fin.

Sin embargo, la patronal no está actuando actúa con responsabilidad, y está demostrando una notoria falta de voluntad para solucionar el conflicto. Aunque tras las huelgas de enero llegó a hacer planteamientos que podían llevar a acuerdos, en la mesa del 25 de marzo se echó atrás en los mismos y llevó una propuesta que presentó como definitiva e inmutable. Cuando los sindicatos le hicimos llegar un documento con las claves para la consecución de acuerdos, ni siquiera respondió. Incluso decidió no acudir a la reunión a la que los sindicatos les convocamos junto con el departamento de Educación en el CRL.

Tras las huelgas de abril los sindicatos hemos mostrado una clara intención por encauzar el conflicto, acercar posturas y buscar acuerdos.

Lamentablemente, una vez más la patronal ha actuado de mala fe y en la víspera de las huelgas de mayo ha difundido en los centros una propuesta que ni siquiera había hecho llegar a todos los sindicatos, sin haber recibido respuesta de ninguno de ellos. A la vista del tipo de propuesta, es evidente que se ha movido únicamente con ánimo de desactivar las movilizaciones y huelgas sin responder a las reivindicaciones laborales, buscando más sembrar la confusión y la división entre trabajadoras, delegados y sindicatos, y no tanto el acuerdo.

De hecho, aunque esta última propuesta contiene alguna variación en cuanto a salarios, en lo fundamental sigue la línea de lo planteado en la mesa del 25 de marzo, por ejemplo al vincular los salarios a la financiación pública, o estableciendo un sistema que hurtaría la posibilidad de negociarlos. En el resto de capítulos no hay avances.

Por su parte, el departamento de Educación ha tenido una actuación totalmente irresponsable y está incumpliendo la petición del Parlamento Vasco de que se implicase en la resolución del conflicto. Su única implicación se limita a reunirse con los sindicatos, a petición de estos y cuando ya se habían llevado a cabo 18 días de huelga. Aunque hace cuatro años que hicimos llegar a Educación y a las patronales un planteamiento en torno a la recolocación de las trabajadoras y trabajadores que perdiesen su empleo debido al cierre de aulas, la administración no ha dado ningún paso para hablar de ello hasta hace dos meses, y lo que ha planteado es totalmente insuficiente porque sigue sin ofrecer garantía de recolocación. Por último, ante la convocatoria de reunión que los sindicatos hicimos para el 2 de abril, en lugar de aprovechar la oportunidad para dar una salida al conflicto decidió lavarse las manos y seguir sin implicarse en una solución adecuada.

Así las cosas, los sindicatos hemos empezado a reunirnos con los grupos del Parlamento Vasco para que insten al Gobierno a cumplir la petición que le hicieron.

Los sindicatos ELA, STEILAS, CCOO, LAB y UGT exigimos a las patronales y a Educación que asuman su responsabilidad y que, de una vez, tomen las decisiones que permitan poner final al conflicto, en beneficio de trabajadoras, familias y alumnado.

Por último, felicitamos una vez más a las trabajadoras y trabajadores del sector por la firmeza, fuerza y convicción que han mostrado. Es muy positivo que, ante el deterioro de las condiciones de trabajo, que repercute negativamente en la calidad educativa de nuestros colegios, haya mucha gente dispuesta a luchar para mejorarlas.

Principales reivindicaciones para el nuevo convenio

Empleo:

Acuerdo de mantenimiento de empleo y de recolocación del personal afectado por el eventual cierre de aulas.

Salarios:

Recuperación del poder adquisitivo.

Equiparación salarial del profesorado de 1º y 2º de la ESO.

Jornada y cargas de trabajo:

En cuanto al profesorado, reserva de horas complementarias para la preparación de las clases y para el seguimiento del alumnado, así como un reconocimiento de 70 horas de dedicación no presencial al año.

Respecto al personal de Administración y Servicios, reducción de jornada.

En Formación Profesional, llegar a un acuerdo sobre la distribución irregular de la jornada.

Mejora de las condiciones de trabajo de colectivos especialmente precarizados y feminizados.

Especialistas de apoyo educativo: reconocimiento del carácter educativo de su labor, horas complementarias para la preparación de las tareas y para el seguimiento del alumnado, así como una distribución regular de la jornada desde el 1 de setiembre hasta el 30 de junio.

Personal de primer ciclo de Educación Infantil: reconocimiento del carácter educativo de su labor, reducción de jornada, horas complementarias para la preparación de las tareas y para el seguimiento del alumnado.



